



EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA
Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza
Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONOMICO,
SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE
Viceconsejería de Sostenibilidad Ambiental
Dirección de Calidad Ambiental y Economía
Circular

Ebazpena, 2024ko apirilaren 24koa, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariarena, zeinaren bidez formulatzen baita «CAESA industrialdean Erandio udalerriko plangintzako Arau Subsidiarioen xedapen-aldaketa»ren ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua.

AURREKARIAK

2024ko urtarrilaren 18an, Erandioko Udalak eskabidea aurkeztu zion Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzari, «CAESA industrialdean Erandio udalerriko plangintzako Arau Subsidiarioen xedapen-aldaketa»ren ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egin zezan, bat etorritik Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearekin eta Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearekin.

Honako dokumentu hauek erantsi zaizkio eskabideari: Planaren zirriborroa, hasierako dokumentu estrategikoa eta Planen eta programen ingurumen-ebaluazioa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren V. eranskineko formularioa.

Ingurumen-organoak kontsulta-izapidea egin zuen 2024ko otsailaren 28an, halaxe zehazten baita abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 9. artikuluan. Izapide horren emaitza espedientean dago jasota. Era berean, izapidea hasiko zela jakinarazi zitzaion Erandioko Udalari.

Halaber, espedientean jasota dagoen dokumentazioa eskuragarri jarri zen Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean, haren inguruan interesa zuen orok aukera izan zezan ingurumen-arloko egoki iritzitako oharra egiteko.

Txostenak jasotzeko indarrean dagoen legerian ezarritako epea bukatuta eta jasotako txostenak aztertuta, egiaztatu zen ingurumen-organoak bazituela behar beste judizio-elementu ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egiteko, abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 19. artikuluan xedatutakoaren arabera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 60. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da planen ingurumen-ebaluazioa arautuko duten oinarriak ezartzea, plan horiek ingurumenean eragin nabarmenak izan ditzaketenean; ingurumena babesteko maila handia bermatuko da, garapen jasagarria sustatzeko asmoz.

Abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 72.1 artikuluan xedatutakoa aplikatuta, ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta egin behar zaie administrazio publiko batek abian jarritako plan eta programei, bai eta haien aldaketei eta berrikuspenei ere (II.A eranskinean zerrendatu dira), legeko edo erregelamenduzko xedapen batek edota Gobernu Kontseiluaren erabaki batek beharturik egin badira; besteak beste, lege ingurumen-eraginaren ebaluazioa egin behar duten proiektuak etorkizunean baimentzeko esparrua ezartzen dutenak, hiri-lurraldearen antolamenduari buruzkoak (aipatutako eranskinaren 6. atala).

Abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 68. artikulua xedatzen duenez, plan baten ingurumen-ebaluazio arrunta hasteko, beharrezkoa da ingurumen-organoak zehaztea zein den ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena, ukitutako administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egin ostean.

Donostia 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Este documento es una representación del original disponible a través del **localizador** y la **sede electrónica** indicados al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizkoaren irudikapen bat da, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** eta **egoitza elektronikoaren** bidez eskuragarri dagoena.



Bestalde, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 18.1 artikuluan xedatzen du irismen-dokumentua hasteko eskabideari zer dokumentu erantsi behar zaizkion, eta, abenduaren 9ko 21/2013 Lege horri aurka egiten ez dion orotan, Planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 8. artikulua zabaltzen du osatzen du hasierako dokumentu estrategikoari erantsi beharreko edukia.

Amaitzeko, ingurumen-ebaluazio estrategikoaren irismena zehazte aldera, aintzat hartu dira 2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak IV. eranskinean jasotako eskakizunak, ingurumen-azterketa estrategikoaren edukiari buruzkoak, baita 2012ko urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak I. eta II. eranskinetan jasotakoak ere, erreferentziazko dokumentuaren edukiaren gainekoak eta ingurumen-jasangarritasunari buruzko txostenaren edukiaren gainekoak, hurrenez hurren.

Orain arte ezarritakoari jarraikiz, espedienteko txostenak aztertu, eta honako hauek guztiak ikusi dira: 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena; 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoa; 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena; 68/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena, eta aplikatzeko den gainerako araudia. Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa. – «CAESA industrialdean Erandio udalerriko plangintzako Arau Subsidiarioen xedapen-aldaketa»ren (aurrerantzean, Plana) ingurumen-ebaluazio estrategikoaren irismen-dokumentua formulatzea, ingurumen-ondorioetarako bakarrik eta honako zehaztapen hauen arabera:

1. Planaren xedea eta ebaluazio-prozesuaren irismena

Erandioko plangintzako Arau Subsidiarioak 1992an onartu ziren behin betiko (1993ko ekainaren 4ko BAO, 126. zk.), eta gaur egun berrikuspen-prozesuan daude; zehazki, 2018ko martxoaren 8an onartutako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren (aurrerantzean, HAPO) aurrerapena argitaratuta dago. Arau Subsidiarioek hiri-lurzoruaren erabilera misto gisa kalifikatzen dute (industriakoa eta hirugarren sektorekoa).

Eremua «ER-6 Berrikuntza Gunea: Altzaga gunea itsasadarrera irekitzea» eremuaren parte da; eremu hori 2023ko apirilean behin-behinean onartutako Bilbo Metropolitarraren Lurralde Plan Partzialean (aurrerantzean, Bilbo Metropolitarraren LPP) definitu zen, non gune horretarako antolamendu-irizpideak zehazten diren.

Planaren xedea CAESA enpresa zegoen lurzatia hirigintzaren aldetik eraberritzea da, Erandioko Altzaga auzoko hirigunean hobekuntzak eginez eta itsasadarrarekin lotura duten espazioak irekiz, eta, era berean, enpresa horretako langile ohien arazo soziorabialak konponduz. Horretarako, egiturazko antolamenduari dagokionez, aurreko CAESAren lurzoruak erabilera mistoko hiri-lurzoru finkatu gabe gisa birkalifikatu dira (bizitegia/jarduera ekonomikoak), eta antolamendu xehatuari dagokionez, hirigintza-parametroak ezarri dira (sestra gaineko eta azpiko hirigintza-eraikigarritasuna, etxebizitza kopurua, eraikuntza-profilak eta abar). Bestalde, operazioaren bideragarritasuna bermatzeko, lurzoruen ingurumena leheneratzeko beharra kontuan hartu da.

Aurkeztutako dokumentazioaren arabera, proposatutako soluzioa bat dator HAPOren aurrerapenarekin eta Bilbo Metropolitarraren LPPekin.

Eremuaren azalera osoa 40.915,57 m²-koa da. Zonakatzeari eta erabilera xehatuei dagokienez, Planak honako banaketa hau proposatu du: % 32,53 sistema orokorretarako (13.312 m²), % 32,26 tokiko sistemen sare publikoko zuzkiduretarako (13.201 m²), % 20,78 bide-komunikazioko tokiko sistemetarako (8.502 m²), % 12,36 bizitegi-erabileretarako (5.057 m²) eta % 2,06 jarduera ekonomikoetarako (843 m²).

Planak proposatutako eraikigarritasun osoa, zuzkidura publikoak barne, 110.584 m²-koa da: 64.626 m² sestra gainean eta 45.958 m², sestra azpian. Bizitegi-erabilerako etxebizitzaren eraikigarritasuna 51.469 m²-koa da, eta gaur egungoarekin alderatuta, hazkundera 48.334 m²-koa da; bestalde, jarduera ekonomikoaren eraikigarritasuna (industriakoa eta hirugarren sektorekoa) 25.033 m² murriztu da (32.233 m²-tik 7.200 m²-ra). Horrela, sestra gaineko eraikigarritasunaren hazkundera 25.583 m²-koa da, zuzkidura publikoak barne.

Zuzkidura publikoen artean, beste erabilera batzuetarako bizitegi-eraikinen beheko solairuetan kokatutako 1.500 m² kontuan hartu dira, baita zuzkidura-bizitokietarako eraikigarritasuna ere (2.175 m²).

Alternatibei dagokienez, ez da kokapen-alternatibarik planteatu, Planaren helburua CAESA enpresa zegoen lurzoruak leheneratzea baita.

Hasierako dokumentu estrategikoak hiru alternatiba jasotzen ditu, 0 alternatiba edo «esku ez hartzea» barne. Alternatiba hori baztertu egin da, ez duelako ahalbidetzen CAESAren lurzoruak leheneratu eta hiri-sarean integratzea, ezta, beraz, nukleo koherenteago bat eta kalitate handiagoko hiri-paisaia bat sortzea ere.

Bestalde, 1. alternatibak zertxobait aldatzen du eremuaren mugaketa, 40.915,57 m²-ra iritsi arte. Egiturazko antolamenduan erabilera misto orokorra ezarri da (bizitegietakoa eta hirugarren sektorekoa), eta itsasadarrarekiko perpendikularrean kokatutako sei bloke lineal planteatu dira, 450 etxebizitza hartuko lituzketenak. Bizitegi-blokeek etxadiaren zabalerarik handieneko eremua hartzen dute; hirugarren sektoreko erabilerarako, berriz, altuerako azken bloke bat proposatu da, ipar-ekialdeko izkinan, lehendik dagoen hirugarren sektoreko eraikinaren aurrean, zeina finkatu egingo baita. Halaber, eremuaren hegoaldeko muturrean 725,01 m²-ko lurzati bat gorde da zuzkidura-bizitokietarako. Espazio librearen blokeen arteko guneetan banatu dira, eta haien azaleraren zati bat sistema lokalen sarerako gorde da. Garaje-erabilera sestra azpiko solairuan ahalbidetu da, eta aparkaleku-zuzkidura araudiak ezarritakoa baino handiagoa da.

2. alternatibak 1. alternatibaren eremuaren mugaketa eta erabilera orokorra mantentzen ditu (bizitegietako eta hirugarren sektoreko erabilera mistoa). Era berean, 1. alternatibaren bizitegi-blokeen eta hirugarren sektoreko eraikinaren antolaketa bera mantentzen da. Hala ere, zuzkidura-bizitokiaren eraikina eremuaren hego-ekialdeko izkinan dago.

1. eta 2. alternatibak oso antzekotzat jo dira ingurumen-ikuspegitik, eta biek ala biek lurzoruaren berreskuratzea eta eremuaren paisaia-izaera hobetzea dakarte, industria-lurzoru bat birmoldatu eta hirigunean integratzen baitute. Hala ere, 1. aukerak Altzagako hirigunearekiko komunikazio hobe, espazio irekiago bat eta integrazio egokiagoa ahalbidetzen dituela ondorioztatu da.

2. Ingurumen-helburu estrategikoak, printzipioak eta jasangarritasun-irizpide aplikagarriak

Ingurumen-azterketa estrategikoak berariaz justifikatu beharko du Planak nola ezartzen dituen araudietatik, estrategietatik eta oro har onartutako programetatik eratorritako ingurumen-helburuak; 2020ko IV. Ingurumen Esparru Programaren helburu estrategikoak eta jarduketa-lerroak hartuko dira plana egiteko funtsezko oinarri gisa. Horiek indarrean jarraitzen dute 2030 Ingurumeneko Esparru Programa eraldatzeko proiektuetan. Gainera, kontuan hartu beharko dira Planen eta programen ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuan jasotako irizpideak eta Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legean ezarritako helburuak eta printzipioak.

Halaber, kontuan hartu beharko dira Planari aplikagarri zaizkion lurralde-antolamenduko planetan eta plan sektorialetan ingurumena babesteko finkatutako irizpideak, helburuak eta zehaztapenak.

Zehazki, garapen jasangarriko printzipio hauek zuzenduko dute Plana:

- a) Lurzorua zentzuz eta intentsiboki erabiltzea eta lehendik ere artifizialdurik dauden lurzoruen erabilera intentsiboa lehenestea, balio agrologiko handiko lurzorua eta lurzoru naturala urbanizaziotik babestuz.
- b) Hiri-segregazioa, hiri-barreiadura eta mugikortasun behartua saihestea, irisgarritasuna sustatuz, lurzoruaren erabileren eta mugikortasunaren plangintza integratuaren eta hiri-egitura dentso, trinko eta konplexuen bidez.
- c) Lurzorua zigilatzea murriztea, lurzorua jasangarritasun handiagoz erabiliz eta ahal beste eginkizuni euts diezaion sustatuz.
- d) Ur-masen egoera ekologiko ona zein baliabide horren erabilera jasangarria lortzea.
- e) Habitata eta espezieak, natura-ingurunea eta konektagarritasun ekologikoa zaindu eta hobetzea.
- f) Biodibertsitatearen galera geldiaraztea, ekosistemak leheneratzea eta lurzoruaren artifizializazioa mugatzea.
- g) Paisaiak eta kultura-ondarea kontserbatu eta hobetzea.
- h) Natura-baliabideen erabilera jasangarria sustatzea: ura, energia, lurzorua eta materialak.
- i) Energia aurrezte, energia-efizientzia eta energia berriztagarrien erabilera eta kogenerazioa sustatzea.
- j) Aire garbia bermatzea, bai eta zarata eta argi-kutsadura handien eraginpean bizi diren biztanleen kopurua murriztea ere.
- k) Klima-alaketarekiko kalteberatasuna gutxitzen laguntzea, kaltea arintzeko eta aldetara egokitzeko neurriak integratuz.
- l) Arrisku naturalak minimizatzea.
- m) Lurzoru kutsatuaren kudeaketa hobetzea, berme juridikoa eta eragileen eta lurzoruaren erabiltzaile potentzialen jarduera indartuz.

3. Esparru geografikoa eta ingurumen-garrantziko eremuak

Planaren eremua CAESA enpresa zegoen lurzatia da. Erabat artifizializatutako eremua da, eta haren gainean daude aipatutako enpresaren pabiloiak eta eremuaren hego-ekialdean dauden etxebizitza-bloke batzuk.

Eremua Ibaizabalgo Unitate Hidrologikoan dago, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoan. Zehazki, «Nerbioi barrualdea drainatzea trantsizioa» (ES111O000030) ur-masaren isuri-arroan dago. Ibai-ibilgu bat ere ez da eremutik igarotzen, baina eremua Ibaizabalen eskuineko ertzetik 40 metro eskasera dago. Eremuaren hego-mendebaldeko muturra Itsaso eta Lehorren arteko Jabari Publikotik 25 metro ingurura dago.

Indarrean dagoen EAEko Itsasertza Babestu eta Antolatze Lurralde Plan Sektorialaren (aurrerantzean, LPS) kartografiaren arabera, Planak ez du haren eremua ukitzen; hala ere, aipatutako LPSren berrikuspenaren aurrerapen-dokumentuaren arabera (2021), Planak ukitzen du haren eremua, eta, zehazki, «eremu garatu»etan lokalizatu da.

Eremuko material litologikoak gainazaleko jalkinak dira, eta porositatearengatik iragazkortasun txikia dute.

Aztertutako esparrua Hegoaldeko Antiklinorioa lurpeko ur-masaren gainean dago (ES017MSBT017-006), eta ez du interes hidrogeologikoko inongo eremurik ukitzen.

Eremua erabat artifizializatuta dagoenez, bertako landaredi urria erruderala edo nitrofiloa da.

Eremuan ez da identifikatu Batasunaren intereseko habitatik edo mehatxatutako flora-espezierik. Itsasadarra honela identifikatu da: 1130 «Estuarioak» Batasunaren intereseko itsas habitat ez-lehentasunezkoa.

Eremuko fauna hiri-eremuekin lotutakoa litzateke. Bisoi europarraren (*Mustela lutreola*)¹ kudeaketa-planean, hobetu beharreko tarte gisa jasota dago eremuaren mendebaldetik igarotzen den Ibaizabal ibaiaren beheko zatia.

Eremuak ez du ukitzen interes geologikoko lekurik, naturagune babesturik, natura-intereseko beste ezein gunerik, ezta Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoko Plan Hidrologikoan Babestutako Guneen erregistroko elementurik eta kudeaketa-plan bat duen fauna-espezie mehatxatuen interes bereziko eremurik ere. EAEko Korridore Ekologikoen Sareko elementurik ere ez du ukitzen. Ibaizabal ibaia bilbe urdin gisa sartu da lurralde-antolamenduaren gidalerroen azpiegitura berdean.

Bilbo Metropolitarraren Eremu Funtzionaleko Paisaiaren Katalogoaren eta Zehaztapenen arabera, eremua itsasadarraren eskuinaldeko paisaia-intereseko esparruan dago. Esku hartzeko eremu bat da; hain zuzen ere, eskuinaldean eta ezker aldean ibaian gora eta behera dauden eremuetakoekin parekatzeko moduko hiri-kalitateko eta itsasadarrarekiko kontaktuko mailak lortzeko.

Geoeuskadiren arabera, sektorean ez da kultura-ondasun izendatutako elementurik identifikatu, baina eraikitako ondarearen «Beste batzuk» kategoriako bi elementu daude: «Franco española de cables» (26. fitxa) eta «Casa Martiartu 4» (103. fitxa). Bi elementuetako batek ere ez du babesik gaur egun. Bestalde, Urdaneta kaleko 3 eta 5 zenbakietako eraikinak Erandioko Arau Subsidiarioen udal-katalogoan jasota daude, eta oinarritzko babesa dute.

Egoera akustikoari dagokionez, Erandio udalerririk zarata-mapa bat du, 2014. urtean eguneratua. Hasierako dokumentu estrategikoari erantsitako azterlan akustikoaren arabera, Planaren eremuan, gauzez (aldi okerrean), maila akustiko handienak lurzatiaren mendebaldeko perimetroaren ondoan identifikatu dira, eta José Luis Goyoaga etorbideko zirkulazioak eragindako zarataren ondorio dira. Eremu horretan, mailak 60 dB (A) ingurukoak dira; hau da, bizitegi-eremu akustikoei aplikatu beharreko kalitate akustikoko helburuak (aurrerantzean, KAH) gainditzen dira —50 dB (A)—. Gainerako lurzatian, soinu-mailak txikiagoak dira, nahiz eta hegoaldean eta iparraldean ere KAHak gainditzen diren lurzatiek mugatzen duten bideen ondorioz.

Bestalde, Bizkaiko errepideen foru-sareko zarata-mapen arabera (2023), eremua inguruko errepideen zortasun akustikoko eremutik kanpo dago.

¹ 118/2006 FORU DEKRETUA, ekainaren 19koa. Horren bidez, Bisoi Europarraren —*Mustela lutreola* (Lineo, 1761)— kudeaketa-plana onartzen da, Bizkaiko Lurralde Historikoan, galtzeko arriskuan dagoen espeziea baita eta babesteko neurri bereziak behar baititu.

Balitzko ingurumen-arriskuei erreparatuta, eremua Bilbo-Erandio (ES017-BIZ-IBA-01) uholde-arrisku handiko eremuan dago, eta 100 urteko errepikatze-denborako uholde-arriskuaren orbana ukitzen du. Itsasertzeko Lurralde Plan Sektorialaren arabera (2022ko aurrerapena), eremua klima-aldaketaekin lotutako arriskuen pean dago mareei dagokienez, baina ez olatuei dagokienez.

Eremuan lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioko lau lurzati daude. Zehazki, 48902-00295, 48902-00080, 48902-00092 eta 48902-00067 kodeekin identifikatutako lurzatiak dira, guztiak industria motakoak. Horregatik, lurzoruaren kalitate-adierazpena izapidetu beharko da, Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legean xedatutakoarekin bat etorritik.

Bestalde, eremua akuiferoen kutsadurarekiko kalteberatasun nabarmenik gabeko esparruen gainean dago; ez du baso-suteen arriskurik, eta arrisku sismikoari dagokionez, azterketa-eremua V. intentsitate-gunean dago.

Gainera, geoEuskadin eskuragarri dagoen kartografiaren arabera, Planaren eremua higadura-maila txikiko guneetan dago. Ez dago SEVESO enpresen istripu-hipotesien afekzio-banden eraginpean. Merkantzia arriskutsuak garraiatzeko arriskuari dagokionez, eremua BI-711 errepideko (Goioaga etorbidea) 100 eta 200 metroko afekzio-banden gainean dago; errepide horrek oso arrisku txikia du.

4. Jarduketak kokatzeko eremu desegokiak

Ingurumenaren ikuspegitik problematikoak diren eta gerora proposamenak gauzatzean zaindu beharko diren eremuak detektatu beharko ditu ingurumen-azterketa estrategikoak. Eremuari buruzko ingurumen-diagnostiko egokia egin beharko da, haren harrera-gaitasuna, arrisku-guneak, eremu hauskor edo kalteberak eta abar ebaluatu ahal izateko. Bereziki kontuan hartuko dira kultura-ondarea, uholde-arriskua, zarata-mailak eta kutsatuta egon daitezkeen lurzorua.

Azterketak justifikatu beharko du Planaren proposamenak bideragarriak direla eta betetzen dituztela, kultura-ondareari dagokionez, Erandioko Arau Subsidiarioen araudia eta Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legea; uholde-arriskuari dagokionez, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoan xedatutakoa (35/2023 Errege Dekretua, urtarrilaren 24koa); zaratari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretua; eta, azkenik, kutsatuta egon daitezkeen lurzoruei dagokionez, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legea.

5. Aldez aurretik egindako kontsultei emandako erantzunen ingurumen-azterketa laburra

Jarraian, eragindako administrazio publikoei eta interesdunei kontsultak egiteko izapidean jasotako txostenetako ingurumen-alderdi garrantzitsuenak laburbildu dira:

Kultura-ondareaz

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen Zentroak jakinarazi du Erandion indarrean dagoen plangintzak udalerrri mailan babestutako elementuen katalogo bat duela, eta horien artean CAESA industria-guneko pabiloiei atxikitako bi bizitegi-eraikin daudela, hego-ekialdeko erpinean eta jarduketa-eremuaren barruan. Babestutako elementuen katalogoko 10. eta 11. eraikinek dira, Urdaneta kaleko 3 eta 5 zenbakiei dagozkienak. Adierazi du aipatutako elementuek Erandioko Arau Subsidiarioetan definitutako araubide berezi bat dutela, Katalogatutako eraikin eta inguruneen buruzko Ordenantzaren 2.2.4 apartatuan garatutakoa; zehazki, aipatutako ordenantzaren 37., 38., 40., 44., 45., 46. eta 47. artikuluetan (ordezkapen- eta eraipen-obren kasuak arautzen dituzte) eta 8.1 (Alderdi Orokorak) eta 8.2 (udal-katalogoaren eraikuntzaren katalogazioa) apartatuetan xedatutakoa.

Bere ustez, aipatutako araudiaren arabera, Urdaneta kaleko 3 eta 5 zenbakiak ordeztzeko edo eraisteko jarduketak ezin dira baimendu, gaur egun indarrean dagoen esparruan, justifikatutako deskatalogazioa egiten ez bada behintzat.

Bestalde, adierazi duenez, bere babes-irizpideekin bat etorritik, ez da esku-hartze egokitzen jotzen inbentarioetan Franco Española de Cables eta Casa Martiartu 4 izenekin identifikatutako udal-intereseko elementuak eraistea. Bi kasuetarako gomendagarria da Ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzko 317/2002 Dekretuaren I. eranskinean («Birgaitzeko esku-hartzeak») jasotako «Zaintzea eta apaintzea» edota «Sendotzea» esku-hartze motak aplikatzea. Lehenik eta behin, esku-hartzeek haien bolumetria, kanpoko irudia eta oinarritzko banaketa tipologiko eta estrukturala errespetatzea gomendatzen da, egituraren material generikoa mantenduz eta ingurunearen ingurumen-ezaugarriak hutsaldu ditzaketen aldaketak saihestuz.

Lurzoruez

Bizkaiko Foru Aldundiaren Nekazaritza Zuzendaritza Nagusiak adierazi du ez dagoela eraginik balio agrologiko eta natural handiko lurzoruetan, eta ez duela eraginik Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialean.

6. Ingurumen-azterketa estrategikoan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdien definizioa eta irismena

Ingurumen-azterketa estrategikoak (aurrerantzean, Azterketa) abenduaren 9ko 21/2013 Legearen IV. eranskinean ezarritako gutxienezko edukia izan beharko du, eta haren osagarri erabiliko da, halaber, planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren II. eranskinean jasotakoa.

Horren arabera, garatzen diren atalek honako eskema metodologiko hau bete beharko dute:

1. Proposatutako Planaren deskribapena
 - 1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak
 - 1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena
 - 1.3. Plangintza-alternatibak
2. Ingurumenaren ezaugarrien zehaztapena
 - 2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena
 - 2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi garrantzitsuak
3. Ingurumen-efektuak
4. Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak
5. Ingurumena zaintzeko programa
6. Ingurumen-laburpena
7. Laburpen ez teknikoa

Ebaluatzen den dokumentuaren ezaugarriak direla eta, ondorioztatu da Azterketak honako alderdi hauetan sakondu beharko duela jarraian adierazten den zabaltasun- eta zehaztasun-mailarekin:

6.1. Planaren deskribapena

Deskribatuko da zer alderdik osatzen duten plana, eta argi eta garbi identifikatuko da Plana gauzatzearen ondoriozko etorkizuneko ekintzetatik zeinek dakarten ingurumenean ondorio kaltegarriak izateko arriskua. Hori guztia, honako atal hauetan adierazitako egiturarekin eta xehetasunekin:

6.1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak

a. Azterketak barne hartuko du Planarekin lortu nahi diren helburu zehatzei buruzko laburpen txiki bat. Gainera, Azterketak labur-labur jaso beharko du nola hartu diren kontuan, Plana prestatu bitartean,

Ebazpen honetako 2. apartatuan jaso diren ingurumena babesteko helburuak eta jasangarritasun-printzipioak eta -irizpideak.

b. Hierarkian Plana baino goragoko mailan dauden planak edo programak identifikatuko dira. Azaletik deskribatuko dira Planaren xedearekin edo eremuarekin zerikusia duten plan edo programa horien zehaztapenak eta aurreikuspenak, bai eta Planari aplikatu behar zaizkion ingurumena babesteko irizpide, helburu eta zehaztapenak ere. Adierazi beharko da zer erreferentzia eta data duten hierarkian Planaren gainetik dauden plan edo programen onespene-egintzek, eta zehaztuko da ea plan edo programa horiei ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin zaien ala ez.

c. Hala badagokio, adierazi beharko da zer irizpide eta zehaztapen ezarri diren hierarkian Planaren gainetik dauden planen ingurumen-adierazpen estrategikoan, baita Plana gauzatzeko beste tresna batzuetan ezarritakoak ere, baldin eta ebaluatu beharreko Planaren eremuari edo xedeari aplikatzekoak badira. Ingurumen-adierazpen estrategikoen erreferentzia aurkeztu beharko da; halaber, zer aldizkari ofizialetan argitaratu diren zehaztuko da, eta kontsulta-gunerako esteka txertatuko da.

d. Adieraziko da ingurumena babesteko zer irizpide, helburu eta zehaztapen finkatzen diren arauetan eta Planarekin hierarkia-harremanik ez duten beste plan eta programa batzuetan ere (Batasunekoak, Espainiakoak, autonomia-erkidegokoak edo tokikoak), baldin eta aplikatu beharrekoak badira.

Zehazki, eta, besteak beste, honako plan eta arau hauek hartuko dira kontuan:

- EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG)
- Bilbo Metropolitarraren Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partziala
- EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana
- EAEko Itsasertza Babestu eta Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala
- Jarduera Ekonomikoak eta Saltokiak Antolatzeko EAEko Lurralde Plan Sektoriala
- Bizkaiko Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektoriala
- Erandioko Plangintzako Arau Subsidiarioak
- Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa (2022-2027)
- Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana (2022-2027)
- 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa.
- 6/2019 Legea, maiatzaren 9koa, Euskal Kultura Ondarearena.
- 4/2015 Legea, ekainaren 25koa, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa.

6.1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena

a. Planaren irismenak ezin hobeto definituta geratu beharko du. Azterketak Planaren aplikazioaren ondorioz planteatzen diren ekintzen deskribapen zehatz bat garatuko du, eta haiek lotura izan beharko dute Planak eragindako eremuan indarrean den hirigintza-antolamenduaren aldean dakartzan aldaketekin edo xehakapenekin, baldin eta ingurumenean ondorio kaltegarri nabarmenak izan baditzaizkete, betiere eremuaren garapenerako beharrezkoak diren jarduketa guztiak aintzat hartuta.

Behar besteko xehetasunez deskribatuko dira Planak azkenean hartutako garapen-alternatiba eta haren ondoriozko jarduketa zehatzak, eta hartutako hirigintza-soluzioa justifikatu beharko da.

b. Planaren proposamenak gauzatzeko erabiliko diren proiektu eta jarduketan ezaugarriei buruzko aurreikuspen bat egingo da.

Azterketak, hala badagokio, Plana esparru duten eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa behar duten proiektuak identifikatu beharko ditu, eta garapen-baldintzak eta proiektu horiek garatzeko unean ahalik eta kalte gutxien sortzeko jarraibideak ezarri beharko ditu.

c. Ingurumenean eragina izateko arriskua dakarten Planeko ekintzak deskribatu eta kokatuko dira, eta garrantzi handienekotik txikienera hierarkizatuko dira, kontuan hartuta haien kokapen zehatza, izaera, magnitudea eta natura-baliabideen kontsumoa. Horrela deskribatutako Planaren ekintza bakoitzari kode bat esleituko zaio. Kode hori Azterketaren hurrengo ataletan erabiliko da, baldin eta aipatu behar bada.

d. Plana onartu ondoren, haren garapena zehaztu eta plangintzaren geroagoko faseak aipatu beharko dira, bai eta Planaren zehaztapenak ezartzeko tresnak ere. Era berean, aurreikusi beharko da garapen-tresna edota -proiektu horiek ingurumen-ebaluazioaren mende egon daitezkeela.

e. Nolanahi ere, Plana garatzeko zenbat denbora aurreikusi den erantsi beharko da, eta, hala badagokio, aurreko atalean azaldutako ekintzetarako denbora-aurreikuspena zehaztuko da.

f. Epigrafe horretan bildutako informazioa kartografikoki islatuko da dagokion eskalan, eta lurraldearen erabilera adierazi beharko da, baita ingurumen-eragin nabarmenak ekartzeko arriskua duten Planaren aurreikuspen eta jarduketak ere. Informazio kartografikoa atxiki beharko da eta, gutxienez, honako hauek jasoko ditu: eremuaren mugaketa, zonakatze zehatza eta jarduketa guztien kokapena, pdf (geo-erreferentziatuta) eta *shape* formatuetan, berrikuspen-lana errazteko.

6.1.3. Plangintza-alternatibak

a. Azaletik deskribatuko dira Plana formulatzeko prozesuan kontuan hartu diren alternatiba guztiak. Alternatiba horiek bideragarriak izan behar dute teknikoki eta ingurumenaren aldetik, eta hauei buruzkoak izan daitezke: kokalekua, garapen teknikoa, garapen-denbora, kudeaketa, antolamendua, natura-baliabideen erabilera edo beste edozein alderdi. Era berean, 0 alternatiba ere hartuko da kontuan —esku ez hartzeko alternatiba—, erreferentziatutak haxe hartuta: jarduketa-eremuaren alderdi garrantzitsuek izango duten bilakaera probablea, planaren proposamenak aplikatu ezean.

b. Aukera horien irismena deskribatuko da, eta zehaztuko da zer alde dagoen aukera bakoitzaren arabera Planean jasotako proiektuen eta ekintzen eta 6.1.2.b atalean deskribatutako proiektuen eta 6.1.2.c atalean deskribatutako ekintzen artean.

c. Laburpen bat ere jasoko da azaltzeko zergatik baztertu diren aztertutako plangintza-alternatibak eta zergatik onartu den azkenean proposatutako alternatiba.

d. Aztertutako alternatibak modu kartografikoan jasoko dira.

6.2. Ingurumenaren egoeraren ezaugarriak zehaztea

Azterketak deskribatu beharko du nolakoa den ingurumenaren uneko egoera (alderdi nagusiak azalduta) Planaren eragin-eremuan. Deskribapen horretan, elementu abiotikoen eta biotikoen ezaugarriak aztertuko dira, bai elementu bakoitzaren ikuspuntu sektorialetik, bai haien elkarreraginaren ikuspuntutik, eta ingurumenaren uneko egoeraren ikuspegi integratua emango da.

Planaren eragin-eremutzat hartuko da, antolamendu-eremu osoaz gain, eremu horren ingurunerik hurbilena, Planaren ekintzek ingurumen-eragin nabarmenak izan ditzaketen gunetara mugatuta.

Ingurumenaren kalitatearen gaineko alderdiei buruzko informazioa azterketetan edo bestelako erreferentzia-dokumentuetan oinarrituta dagoenean, emandako datuen iturria identifikatuko da, eta adieraziko da zein den izenburua, urtea eta egilea, eta, hala badagokio, zer esteka balia daitekeen lana osorik kontsultatzeko.

Azterketak ingurumenearen aldagaiak jasoko ditu, eskala egokiko planoetan.

6.2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena

Honako ingurumen-alderdi hauek aintzat hartuko dira gutxienez:

a. Ingurune fisikoa. Zenbait faktore hartuko dira kontuan, hala nola arroka ama eta zorupea, haien iragazkortasuna, masak eta ur-puntuak, ingurune hidrikoaren inbentarioa (lurrazaleko eta lurpeko ur-masak), faktore klimatikoak eta lurzoru mota.

b. Natura-ondarea. Jasota utziko dira dauden natura-intereseko eta interes ekologikoko elementuak, hala nola ibaien ibilguak, Batasunaren intereseko habitatak, landaredia, mehatxatutako fauna- eta flora-espezieen banaketa-eremuak, naturagune babestuak, hezeguneak, interes geologikoko lekuak eta abar. Dauden elementuen kontserbazio-egoerari buruzko datuak emango dira, bai eta interes-mailari, urrakortasunari eta gaur egungo presioei eta arriskuei buruzko datuak ere, eta Plana gauzatzearen ondorioz areagotzeko arriskua ote duten adieraziko da.

Illo horretatik, zehatz-mehatz deskribatu beharko da hartutako antolamendu-alternatibak zer landarediri eragingo dion, landare mota bakoitzaren okupazio-azalera, kontserbazio-egoera eta funtzionaltasun ekologikoa adierazita.

Eremuko landaredi aloktono inbaditzaileko espezie guztiak identifikatu beharko dira.

c. Paisaia. Pertzepzioaren ikuspuntutik intereseko elementurik dagoen aztertuko da.

d. Ingurumen-arriskuak eta -arazoak. Arriskuei buruz jaso diren datu guztiak emango dira, hala nola lurpeko uren kalteberatasunari, uholde-arriskuari, arrisku geoteknikoei, klima-aldaketak eragindako arriskuei edo aipatzeko moduko beste edozein ingurumen-arriskuri buruzkoak.

Orobat, airearen, uraren edo lurzoruaren kalitateari dagokionez hautemandako ingurumen-arazoak deskribatuko dira, egoera akustikoa barne. Kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak izan dituzten lurzoruak eta kutsagarriak izan daitezkeen iturriak identifikatuko dira, eta natura-baliabideen erabilgarritasuna aztertuko da, bereziki, urarena.

Arreta berezia jarriko zaie uholde-arriskuari, kutsatuta egon daitezkeen lurzatiak egoteari eta zaratari.

Hala dagokionean, aipatutako ingurumen-arrisku eta -arazoen eraginpean bereziki egon daitezkeen eremuko guneak identifikatu eta lokalizatuko dira.

e. Kultura-ondarea. Hautemandako kultura-ondarearen elementu bakoitzaren garrantzia, kalteberatasuna eta babes-tresna eta -maila adieraziko dira. Era berean, kultura-ondasunei kalifikazioa eta babesa ematen dizkieten arau-xedapenak ere aipatuko dira.

f. Atal horretan, gainera, beste ingurumen-baldintzatzaile batzuk landuko dira, baldin eta Planaren ingurumen-ebaluaziorako garrantzitsuak badira, hala nola mugikortasunari eta garraioari buruzko alderdiak, eremuko irisgarritasun-baldintzak, baliabide berriztagarrien eta berriztaezinen kontsumoari lotutako beharrak (ura, energia eta abar), jendea bizi den eremuen presentzia eta kaltetua izan daitezkeen biztanleria eta abar.

6.2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi garrantzitsuak

Aurreko atalean azaldutako deskribapen eta datuak oinarri hartuta, ingurumenaren egungo egoera aztertuko da Planaren eraginpeko esparruan, eta laburki jasoko da zein diren Planeko jarduketaren ondoriozko elementu, prozesu, arazo eta ingurumen-arrisku garrantzitsuenak ingurumen-ebaluazioko prozesuan. Ingurumenaren ikuspegitik interesgarriak diren esparru, elementu edo egoeretan jarri beharko da arreta, baita eragina jasan dezaketen alderdietan ere, Planean jasota dauden jarduketaren ondorioz sortuko diren proiektuen eta ekintzen kokapena eta ezaugarriak kontuan hartuta.

Azterketak ingurumen-ikuspegitik arazotsuak izan daitezkeen eremuak atzeman beharko ditu, proposamenak horietara egokitzeko.

Eremuaren ingurumen-diagnostiko egokia egin beharko da haren harrera-gaitasuna, arrisku-guneak, eremu ahulak edo kalteberak eta abar ebaluatzeko. Atal hau idazteko, ebazpen honen 3. atalean aipatu diren ingurumen-eremu garrantzitsuak eta aplikatu beharreko araudietan eremu horietarako ezartzen diren mugaketak hartuko dira kontuan, gutxienez.

Kasu horretan, Planak planteatzen dituen jarduketan garapena baldintza dezaketen alderdiak lotuta daude maila akustikoekin, kultura-ondareko elementuekin, kutsatuta egon daitezkeen lurzoruekin eta uholde-arriskua duten guneekin; alderdi horiek Azterketan aztertu beharko dira.

6.3. Proposatutako Planaren ingurumen-ondorioak

a. Atal horretan, identifikatu eta baloratuko da zer ondorio izan ditzaketen Planaren ekintzek 6.2 atalean deskribatutako ingurumen-kalitateko elementuetan, eta ondorio horien ezaugarriak deskribatuko dira. Planaren ondorioak identifikatu eta haien ezaugarriak deskribatzeko, azterketa bat egingo da jakiteko zer-nolako elkarreragina dagoen bertan aurreikusitako ekintzen eta eragina izateko arriskuan dauden ingurumen-elementuen ezaugarri espezifikoaren artean, baita zer ingurumen-arazo eta -arrisku sortu edo areagotu daitezkeen jakiteko ere.

Ezaugarrien deskribapenean, argi eta garbi zehaztu beharko da zer-nolako ondorioak dauden, honako hauek bereizita: zeharkako ondorioak, metatze-ondorioak, ondorio sinergikoak, epe labur, ertain eta luzerako ondorioak, ondorio iraunkorrak eta aldi baterako ondorioak.

Azterketaren 6.1.2.c atalean identifikatutako ekintza guzti-guztien ingurumen-ondorioak deskribatuko dira, eta berariaz aipatuko da atal horretan ekintzei esleitutako kodea.

Hala dagokionean, zenbait ekintzaren konbinaziotik eratorritako ondorioak zehaztuko dira. Gainera, ingurumen izaerako edozein efektu bereiziko da, baldin eta biztanlerian, giza osasunean edo ondasun materialetan ondorio kaltegarri eta nabarmenak izan baditzaie.

Horrela deskribatutako Planaren efektu bakoitzari kode bat esleituko zaio. Kode hori Azterketaren hurrengo ataletan erabiliko da, haren erreferentzia behar bada.

Besteak beste, afekzio hauek ebaluatuko dira bereziki:

- Kultura-ondareari dagokionez, behar bezala justifikatu beharko da Planak proposatutako jarduketak baimendu daitezkeela; hau da, Erandioko Arau Subsidiarioen araudia eta Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legea betetzen dituztela.
- Uholde-arriskuari dagokionez, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoaren araudia betetzen dela justifikatu beharko da.
- Aurreikusitako erabileretan Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan ezarritako Kalitate Akustikoko Helburuak zer mailatan betetzen diren aztertu beharko da. Ildo horretatik, kontuan hartu beharko da etorkizunean ezin izango dela hirigintza-garapenik egin kanpoaldeko Kalitate Akustikoko Helburuak betetzen ez diren eremuetan, hargatik eragotzi gabe aipatutako dekretuaren 43. eta 45. artikuluetan ezarritakoa.
- Espezie aloktono inbaditzaileak barreiatzeko arriskua aztertuko da.
- Garapenak ingurunean eragingo duen paisaia-inpaktua aztertu beharko da.
- Hondeaketan eta lur-mugimenduen ondoriozko eraginak baloratuko dira, bereziki aurreikusitako hondeaketa-soberakinen kudeaketaren ondoriozkoak. Era berean, obra-soberakinen eta hondakinen sorrerak eragin ditzakeen afekzioak baloratuko dira.
- Ustiapen fasean, eremuan jarduera handitzearen ondoriozko eraginak izan ahal izango dira, eta horrek hondakinen sorrera eta ur- eta energia-kontsumoa handitzea ekarriko du, bai eta mugikortasun behartua eta soinu-mailak handitzea ere. Ingurumen-azterketa estrategikoak eragin horiek ere aztertuko ditu.

b. Identifikatu eta kodetutako efektu bakoitza baloratzeko, honako alderdi hauek kontuan hartuko dira, besteak beste:

- Gertatzeko probabilitatea, iraupena, maiztasuna eta itzulgarritasuna.

- Efektuen magnitudea eta irismen espaziala.
- Eraginpean gera daitekeen eremuaren balioa eta kalteberatasuna, honako hauek kontuan hartuta:
 - Natura-, kultura- eta paisaia-ezaugarri berezirik dagoen.
 - Aurkako ingurumen-baldintzarik dagoen, airearen, uraren edo lurzorua kalitate-estandarrek edo muga-balioak gaindi ditzakeenik.
 - Planak zer neurritan sortu edo areagotu ditzakeen ingurumen-arriskuak.

Ahal den guztietan, ondorioak kuantifikatuko dira, eta, horretarako, Planean aurreikusitako jarduketak eta proiektuak gauzatzeak deskribatu diren ingurumen-ondorioen egoeran eragingo dituen aldaketei buruzko datu neurgarriak erabiliko dira. Hala badagokio, eragin horien iragarpenean zer ziurgabetasun-maila dagoen adieraziko da.

c. Halaber, ahal den neurrian, efektuak kartografikoki lokalizatuko dira, eta, orobat, saiatuko da lotzen plan edo programaren zer fasetan gerta daitezkeen.

d. Adieraziko da detektatutako ondorio horren sorburu-ekintzak eskatzen duen ala ez Planaren zehaztapenak beste plan eta programa batzuetan txertatzea, eta kasu bakoitzean zehaztuko da zein plangintza-tresnari eragingo zaion.

e. Horrela deskribatutako ingurumen-ondorioak hierarkizatuko dira, eta horien garrantzi erlatiboa nabarmenduko da.

6.4. Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak

a. Atal honetan, deskribatuko da zer neurri aurreikusi den Azterketaren 6.3 atalean deskribatutako ingurumen-efektu kaltegarriak prebenitzeko, murrizteko eta, hala badagokio, konpentsatzeko. Hartuko diren neurriek bermatu beharko dute ez dela ingurumen-efektu handirik sortuko Planaren ekintzak garatzearen eta etorkizunean gauzatzearen ondorioz. Haien helburua izango da natura-baliabideak babestea, natura-arriskuak prebenitzea eta detektatutako ingurumen-arazoen aurrean hobetu eta egokitzea.

b. Proposatutako neurriek koherenteak izan beharko dute aurreikusitako ingurumen-ondorioekin. Neurriak deskribatuko dira, eta Azterketaren 6.3 atalean identifikatutako efektuekin —prebenitu, zuzendu edo konpentsatu nahi direnekin— lotuko dira. Bereziki, besteak beste, honako neurri hauek zehaztuko dira:

- Kultura-ondareari dagokionez, Erandioko Arau Subsidiarioen araudia eta Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legea betetzen direla bermatzeko ezarri beharreko neurriak ezarriko dira, esaterako, prebentzio-, zuzenketa- edota konpentsazio-neurriak, eta, ondorioz, Planaren proposamenak baimendu ahal izango dira.
- Uholde-arriskuari dagokionez, Planak Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoaren zehaztapenak bete beharko ditu (35/2023 Dekretua, urtarrilaren 24koa). Beraz, ingurumen-azterketa estrategikoak Planean aurreikusitako jarduketak jaso beharko ditu, arrisku hori prebenitzeko eta haren bideragarritasuna bermatzeko.

Plan Hidrologikoaren araudian ezarritakoa (48. artikulua) ere kontuan hartuko da, honako honi dagokionez: hirigintza-garapen berriek behar-beharrezkoak diren azaleretara mugatu beharko dute zoladura edo okupazio iragazgaitza, eta lehendik zegoen egoerarekin alderatuta ur gehiago jariatuz gero, hori konpentsa daitekeela edo garrantzirik gabekoa dela bermatuko duten drainatze jasagarriko sistemak txertatu beharko dituzte (zoladura iragazkorrak, andelak edo ekaitzetarako gailuak eta abar). Horrez gain, sortutako jariatze-uren tratamendua aurreikusi beharko dute. Alderdi hori etorkizuneko urbanizazio-proiektuari lotutako jarduketaren definizioa adierazten den hirigintza-araudian jaso beharko da.

- Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioan jasotako lurzatiak daudenez eremuan (48902-00295, 48902-00080, 48902-00092 eta 48902-00067 kodeak), Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legea betetzeko egin beharreko jarduketak zehaztu beharko dira (lurzoruaren kalitate-adierazpena, hondeaketa-plana eta abar). Hala badagokio, lurzoruaren kalitate-adierazpenetan ezartzen diren neurriak txertatuko dira.
- Sortutako hondakinak behar bezala kudeatzeko neurriak ezarriko dira, gai horretan indarrean dagoen araudiaren arabera. Ildo horretatik, hondakinen hierarkia-printzipioa kontuan hartuko da. Printzipio horrek hondakin-arloko jarduketaren lehentasun-ordena hau zehazten du: hondakinen prebentzioa, berrerabiltzeko prestatzea, birziklatzea, beste balorizazio mota batzuk (balorizazio energetikoa barne) eta, azkenik, hondakinak ezabatzea.
- Ingurumen-azterketa estrategikoak berdeguneak behar bezala tratatzeko eta leheneratzeko neurri zehatzak identifikatuko ditu, espezieak, landaketa-esparru egokia, mantentze-lanak eta abar adierazita, xehetasunez garatu ahal izan daitezen eremuaren etorkizuneko urbanizazio-proiektuari lotutako leheneratze-proiektu batean.

Hala badagokio, detektatutako flora aloktono inbaditzaileko espezieak desagerrarazteko hartu beharreko neurriak zehaztu beharko dira.

- Eremua Babes Akustiko Bereziko Eremu izendatzeko idatzitako Esparru Planean ezartzen diren eremu akustikoen kanpoaldea babesteko zuzenketa-neurriak jasoko dira. Halaber, EAEko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan eraikinen barrualderako ezarritako kalitate akustikoko helburuak lortzeko hartu beharreko neurriak txertatuko dira.
- Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak eskatzen duenarekin bat etorritik, klima-aldaketa izan lezakeen eragina arindu eta hartara egokitzeko neurriak barne hartuko ditu ingurumen-azterketa estrategikoak. Xede horrekin, lhobek egindako gida metodologiko hauek erabili ahal izango dira erreferentzia gisa: «Klima-aldaketa egokitzeko udal-programak egiteko gidaliburua. Udalsarea 21 lan-koadernoak» eta «Euskadiko Hirigintzaren Plangintzari buruzko eskuliburua Klima-aldaketa arintzeko eta Klima-aldaketa egokitzeko».
- Ingurumen-azterketa estrategikoak prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurri guztiak zehaztuko ditu eta horien aurrekontua jasoko du; neurri horiek Planaren dokumentazioaren parte izan beharko dute.

c. Adieraziko da Planaren zein zatitan txertatu diren proposatutako neurriak, eta espresuki zehaztuko da Planean bildutako zein dokumentu teknikotan jaso diren neurri horiek.

d. Hala badagokio, prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak proposatuko dira, horiek aplikatzea komenigarria edo egingarria denean, bai plangintzaren geroagoko fase edo etapetan, bai Plana gauzatzeko diseinatzen diren etorkizuneko proiektuetan.

e. Kostu ekonomikoren bat dakarten prebentzio- eta zuzenketa-neurrien aurrekontua ere jasoko da, eta horrez gain, horiek gainbegiratzear arduratuko den agentea edo pertsona zein den adieraziko da.

6.5. Ingurumena zaintzeko programa

a. Azterketak ingurumena zaintzeko programa bat garatuko du eta, bertan, Plana aplikatzeak dakartzan ondorioak berrikusteko aurreikusitako neurriak deskribatuko dira. Neurri horien helburua alderdi hauek kontrolatzea izango da:

- Planak ingurumenean izan ditzakeen efektu kaltegarriak prebenitu, murriztu edo zuzentzeko neurriak behar bezala ezartzen direla gainbegiratzeko.
- Ingurumen-elementu garrantzitsuen zein Plana martxan jarri aurreko ingurumen-arazoen bilakaera zaintzea.

- Plana gauzatzearen ingurumen-ondorioak aztertzea, aurreikusi gabeko ondorio kaltegarriak azkar identifikatzeko, baita horiek eragozteko edo zuzentzeko neurri egokiak hartzeko ere.
- Plana gauzatzeko aurreikusitako garapen-tresnetan eta proiektuetan prebentzio- eta zuzenketa-neurri osagarriak hartu behar den aztertzea.

b. Jarraipen-neurriak identifikatuko dira, eta neurri horiek bat etorri beharko dute Azterketaren 6.4 atalean jasotako babes-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriekin.

c. Ingurumena zaintzeko programak jaso beharko du zer adierazle proposatzen diren Azterketan, baita zer proposamen zehatz egiten den ere, kasu bakoitzean datuak biltzeko erabiliko diren aldizkakotasunari eta metodoei buruz.

6.6. Ingurumen-laburpena

a. Ingurumen-alderdiak Planean nola txertatu diren deskribatuko da. Xehetasunez aztertuko da nola hartu diren kontuan eta nola betearazi diren Azterketaren 6.1.1 atalean ingurumena babesteko finkatutako irizpideak, helburuak eta zehaztapenak.

b. Aztertuko da zer-nolako probabilitatea dagoen Planak etorkizunean ingurumenean efektu nabarmenak izateko, eta behar diren argudioak emango dira honako hau egiaztatze aldera: proposatutako babes-, zuzenketa- eta/edo konpentsazio-neurriak Planean txertatuz gero, oso arrisku txikia dagoela efektu nabarmen horiek gertatzeko, eta, ondorioz, ez dagoela eragozpenik Plana garatzeko. Ondorio hori laburbiltzeko, Azterketaren gainerako apartatuetan jasotako informazioei buruzko erreferentzia egokiak erabiliko dira.

6.7. Laburpen ez teknikoa

a. Azterketak barnean hartuko du emandako informazioaren laburpen ez tekniko bat, zeinak ebaluazio-prozesuan jorratutako gaietako prestakuntza espezifikorik ez duten pertsonek erraz ulertzeko moduan idatzita egon beharko baitu.

b. Laburpen horri, gainera, egindako ebaluazioa hobeto ulertzen lagunduko duen informazio grafikoa erantsi beharko zaio, edo, bestela, informazio hori erraz eskuratzeko behar diren erreferentziak jaso beharko dira.

7. Jendaurreko informazioaren izapideak eta kontsultak

Abenduaren 9ko 21/2013 Dekretuaren 21. artikuluan eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 73. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, organo sustatzaileak jendaurrean jarriko du Planaren hasierako bertsioa, baita ingurumen-azterketa estrategikoa ere, gutxienez 45 egun balioduneko epean.

Era berean, organo sustatzaileak, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 22. artikuluan eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 73. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, gutxienez, irismen-dokumentu hau egiteko kontsultatu egin zaien administrazio publiko ukituen eta interesdunen eskura jarriko ditu Planaren hasierako bertsioa eta ingurumen-azterketa estrategikoa, azter ditzaten. Hona hemen egindako kontsulten zerrenda:

- Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzaren Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendariordetza Bizkaiko Lurralde Ordezkaritza
- Ihobe
- URA Uraren Euskal Agentzia
- EAEko Kosten Demarkazioa (Nekazaritza eta Arrantza, Elikadura eta Ingurumeneko Ministerioa)
- Bizkaiko Foru Aldundiaren Kulturako Zuzendaritza

- Lurralde Garapenerako Zuzendaritza Azpiegiturarako eta Lurralde Garapenerako Saila Bizkaiko Foru Aldundia
- Ekologistak Martxan
- Eguzkizaleak elkarte (Eguzki)
- Haritzalde Parkeen Lagunak elkarte naturalista
- Áncora elkarte

8. Dokumentazioa aurkezteko jarraibideak

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 24.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, organo sustatzaileak ingurumen-ebaluazio estrategikoaren espediente osoa igorriko dio ingurumen-organoari, honako hauek barnean hartuta: plan edo programaren azken proposamena, ingurumen-azterketa estrategikoa, informazio publikoaren eta kontsulten emaitzak eta laburpen-dokumentu bat, plan edo programaren azken proposamenean honako alderdi hauek nola txertatu diren azaltzen duena: ingurumen-alderdiak, ingurumen-azterketa estrategikoa eta azterketa hori irismen-dokumentura nola egokitzen den, egindako kontsulten emaitza eta kontsulta horiek nola hartu diren aintzat.

Ingurumen-adierazpen estrategikoa eskatzeko eta dokumentazioa entregatzeko behar bezala bete beharko dira Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean horri buruz dauden jarraibideak, esteka honetan jasotzen direnak:

<https://www.euskadi.eus/informazioa/ingurumen-ebaluazio-estrategikoaren-prozeduraren-tramitazioa/web01-a2inginp/eu/>

Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa gidaliburuaren arabera egin eta aurkeztu beharko da. Gidaliburua ingurumen-organoaren webgunean dago eskuragarri, esteka honetan:

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/tramitacion_eae/eu_def/adjuntos/2022_Dokumenteak-aurkezteko-GIDA_v4.pdf

Bigarrenena. - Ebazpen hau Erandioko Udalari jakinaraztea.

Hirugarrena. - Agindua ematea Ebazpen hau argitara dadin Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko apirilak 24.

Javier Aguirre Orcajo

Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendaria